

<b>BIDEO-ZAINTZA KUDEATZEA</b>	
<b>DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA</b>	
<b>Arduraduna</b>	<p><b>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</b></p> <p>EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea, 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefonoa: 945 017 300 Helbide elektronikoa: <a href="mailto:ejie@ejie.eus">ejie@ejie.eus</a> Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: <a href="mailto:dpd@ejie.eus">dpd@ejie.eus</a></p>
<b>Helburua</b>	<p><b>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>EJIEko instalazio, ondasun eta pertsonen segurtasuna ziurtatzeko aldera grabazio edo bideo-zaintzako mekanismoen bidez lortu den informazio pertsonala kudeatzeko. Eremu babestuetara eta barruko eremu mugatuetara nor sartzen den kontrolatzeko, eta perimetroa kontrolatzeko.</li> </ul>
<b>Legitimizazioa</b>	<p><b>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</b></p> <p>Honako lege hauetan oinarri hartuta tratatu ditugu zure datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>DBEO: 6.1.f) Tratamendua beharrezkoa da EJIE SAK lortu nahi dituen interes legitimoak betetzeko.</li> </ul>
<b>Hartzaileak</b>	<p><b>Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Datu pertsonalak ez dizkiegu hirugarrenei lagako, Segurtasun Indar eta Kidegoei edota Epaitegi eta Auzitegiei izan ezik, eskatzen badute.</li> <li>Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horiek nazioartean transferituko direnik.</li> </ul>
<b>Datuak gordetzea</b>	<p><b>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bideoetatik lortutako irudiak 30 egunez gordeko ditugu, irudiak hartu direnetik hasita, non eta ez zaien jakinarazten Segurtasun Indar eta Kidegoei edo/eta Epaitegi eta Auzitegiei.</li> </ul>
<b>Eskubideak</b>	<p><b>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den.</li> <li>Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko,</li> </ul>

	<p>besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu.</li><li>• Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoiaren ondorioz, interesdunek aukeratu izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arrazoiak ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada.</li><li>• Interesdunek EJIE SArri eman dizkieten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko.</li><li>• Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute <a href="mailto:lop-d-ejie@ejie.eus">lop-d-ejie@ejie.eus</a> honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta.</li><li>• Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik batik, <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.</li></ul>
<b>SEGURTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Datuak konfidentziaztasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezela aldatu, galdu edo beste inolabait tratatu eta inork ez ditza baimenik gabe eskuratu.</li></ul>